

Saharako bi emakumeren egonaldia

Tecber Brahim Mahmud eta Chaia Bay Alian Saharako herritarrak behin-behinean Andoainen bizitzen ari dira, osasun arazoak medio. Sorterrira itzultzeko gogoz daude / 4-5



Imanol Ansa
erremontistari
elkarrizketa,
asteburuko finalaren
inguruan / 10-11



Andoain Piano
Jaialdiak
garrantzia handia du
ikasle gazteen
garapenean / 8



Sinadura-bilketa, bostehun mila bizitza erregularizatzeko

Migratzaileen etengabeko kriminalizazioarekin amaitu behar dela uste dute Mujika eta Mounpe urnietarrek / 16



Urnietako Emakumeen eta Gizonen
III Berdintasun Plana osatu da,
bide horretan sakontzen jarraitzeko

Plana Urnietako Udalaren
webgunean kontsulta daiteke



Urnietako
udala

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

NIEBLA FAMILIA URNIETA

Asier Nieblaren familiaren komunikatua

Justizia Auzitegi Nagusiak emandako ebazpenaren ondoren, zeinak ezetsi egin duen genero-arrazoia delitu astungarria izatea, eta hiru urte baino gehiagoko aldarrikapenaren ondoren, etsita baino ezin dugu egon hura ez aplikatzeagatik.

Gogoratu epaiketako sententzia, herri-epaimahaiak osaturikoa, genero-astungarria duen dolozko giza hilketa izan zela ebatzi zuela. Errekurtsoetan, EAEko justizia-azitegi nagusiak astungarri hori kendu zuen, eta, ondoren, Auzitegi Nagusia ez zen gaian busti, eta ez zuen gehitu nahi izan, nahiz eta Goreneko fiskaltzak berriro sartzeko adierazi.

Soilik ulertzen dugu kendu izana eta gero berriro sartu ez izana, horren gainean ez

dutelako busti nahi izan. Ukazioa izan da hartu duten bide errazena, polemika gutxien sor dezakeelakoan. Herri-epaimahaiak, epaiketara justu eta luze batean, eta gorenko fiskaltza epaimahaiak sartzearan alde zeuden. Baina ez dute kontutan hartu, "Herriaren" ordezkariak eta Goreneko fiskaltzari entzungor eginez, haiek baitira prozesuaren zintzotasuna ordezkatzeko dutenak, inpartziala izanik. Goragoko auzitegiak alegatuak zorabiatzeko modukoak dira, kontzeptua disimulatzen saiatzen dira, baina, azkenean, kontzeptu orokorra, larrigarri hori ez sartzeko honakoa da: Asier ez dela emakume bat.

Lehenengo minututik argi utzi nahi izan dugu

emakumearen aurkako indarkeriaren legea beharrezkoa dela, baina ikus dezakegu, Asierren kasuan gertatu bezala, lege honek hutsuneak dituela. Nola da posible instantzia batzuetan babesa ematea eta beste batzuetan ez? Auzitegiak, herri-epaimahaiak, fiskalak... Nola egon daiteke euren artean hainbesteko desadostasuna?

Lehen sententziarekin borrokatu eta lortu genuenaren ondoren, bide bat ireki zen genero-indarkeriaren legea zabaltzeko, ez aldatzeko, baizik eta zabaltzeko.

Asier hitz egiten ari zen neskaren mutil-lagun ohiak buruan emandako kolpe baten ondorioz hil zen. Ez zuten elkar ezagutzen, hitzik esan

gabe, erreakziorako aukerarik gabe hil zen, lekukoek adierazi zuten bezala. Neska-lagun ohiaren arabera, erasotzaileak berarekin zegoenari eraso egingo ziola mehatxu egin zion, eta Asier hil zuen. Hori ez al da hilketa bat? Bada, hilketa doloso eta gainera eskerrak eman behar bi egunetan kalera ez irteteagatik. Justizia oso oinarritzkoa eta zaharkitua dugu, genero-indarkeriari dagokionez kasu horiek islatuta eduki beharko lituzke. Asierrena bezala, eta legearen pisu guztia egilearen gain ezarri.

Hala ere, atsekabetuta egonda ere, eskerrak eman behar dizkiegu guztioi, batez ere Urnietako herriari eta bere ordezkari politikoei, Donostiako udalari, prentsari,

ez baitu morboa bilatu, eta babesa eman diguten guztiei.

Asier ez da biktima ofiziala estatuarentzat, baina bai herriaren sentipenarentzat, eta horrela jakinarazi diguzue, eta, horregatik, oso eskertuta gaude.

Ahal dugun guztia egiten jarraituko dugu legea zabaltzeko eta Asierrena bezalako kasuak sartzeko, guztiok legearen aurrean babestuago egon gaitzen.

Genero Indarkeriaren Legea zabaltzeak osatu egiten du, ez du deus kentzen.

Gertatu den guzti honetatik ikasi beharko genuke, eta ez ahaztu gutako bakoitzaren baitan dagoela gizartea hobera aldatzea. Eskerrik asko.

Asier, eta biktima guztiak, beti gure bihotzean.



Aiurri eskuragarri:
Etekez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietak).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.





Tere Otamendi, Iñaki Iurramendi, Ana Sanz, Mirene Iraola eta Miren Erkizia elikagaiak antolatzen, Kale Berriko egoitzan. AIURRI

Bertso saioa, martxoaren 27an

Andoainen bildutako elikagai guztia otsailaren 27an Saharako bidea hartuko duen karabanaren esku utzita, Hurria-Saharakoek bertsozaleentzat urteko hitzordurik preziatuena den bertso-saioa antolatzeari ekingo diote. Datorren martxoaren 27an izango da, Bastero Kulturgunean. Laster emango dituzte saioari buruzko xehetasunak.

Xabier Lasa ANDOAIN

Arroza, lekalea, azukrea, atuna, pasta, konpresak, botikak... Denetik jaso dute Andoainen azken asteetan egin duten elikagaien bilketa-kanpainan. Hainbat saltokik hartu dute parte: Ondarreta eta Zumeako Eroski, Coviran Karrika, BM, Super Amara eta Teletxea. Parte-hartzaileen zerrenda horri Andoaingo farmaziak, Andoaingo ikastetxetako (Aita Larramendi, Ondarreta, La Salle Berrozpe eta ZINE-VIk) ikasleak, Galardi Haur eskola eta Euskalduna futbol taldea erantsi behar zaizkio.

Bilketa amaitutzat eman ostean, egunotan, Hurria Sahara elkarteko kideak genero guztia sailkatzen eta kaxetan sartzen aritu dira Kaleberrian ireki duten egoitzan.

Andoainen eta Euskal Herriko beste makina bat herritan bildu den guztia Saharara bidaliko dute otsailaren 27an, horretarako antolatuko den karabanen. Ez dute edonolako eguna aukeratu, izan ere, 1976ko egun berean sortu baitzen Arabiar Errepublikako Demokratiko Sahararra.

Oso pozik agertu dira Hurria Sahara elkarteko Miren Erkizia eta Ana Sanz kideak. "Janari saltokietan bilketa postuak jarri genituenean, ez genuen espero halako erantzunik. Aurrikusmen ez oso baikor hori edukitzea, kontuan hartu genuen osasun-egoera larria eragiten ari den krisi ekonomikoa, batik bat (dela

Sahararen alde hamar tona elikagai bildu dituzte

Hurria Sahara elkartek eskerrak eman dizkie andoaindarrei, bikain erantzun baitiote Saharako herriaren aldeko elikagaien bilketari. Elikagaietan ia hamar mila kilo jaso dituzte, eta egunotan kaxetetan antolatzen aritu dira bildutako guztia.

ostalaritzaren egoera, direla ERTEak lantegietan...). Elkarteko kideok ere aurrean murriztu egin behar izan dugu kanpainaren nondik norakoa. Saltokietan ezin izan dugu beti bezainbateko lan presentziala egin,

**SAHARAKO
HERRIAREKIKO
ELKARTASUNA BIZIRIK
DAGOELA EGIAZTATU
DUTE ANDOAINEN**

eta kalean mahaia ere ez ditugu jarri". Trabak traba, saltokietan jarri direnean, sahararekiko elkartasuna eta gertutasunak bizirik segitzen duela egiaztatu dute.

Andoainen sustraitutako elkartasuna

Hurria Saharako kideak pertsona aski ezagunak dira herrian, Sahara aske baten aldarrikapen historikoarekin eta bere aldeko elkartasunarekin identifikatzen dira, eta horrek asko errazten

du saltokietan dabilzan bezeroek elikagaiak postutan uzteko keina egin dezaten. "Pasadizo ugari konta ditzakegu "eskean" ibiltzearekin bizi izan ditugunak. Jendearen gizatasuna eta elkartasunaren maila erakusten di-

**EGUN HAUETAN
JASOTAKO
ELIKAGAIK KAXATAN
ANTOLATZEN ARITU
DIRA**

gute. Urteak daramagu antzeko kanpainak egiten, baina oraindik ere emozioz gainezka jartzen gaitu zenbaitek edukitzen dituzten erreakzioekin. Badira familia-ekonomia larri-larri eduki arren, daukaten gutxi horretatik laguntza emateko prest agertzen direnak".

Nazioartean, gatazka-lekuak zein errefuxiatuen kopurua ez da jaitsi, igo baizik, zoritxarrez, azken urtetan. Eta maila berean hazi dira elkartasun ekimenak. "Nolanahi ere, laguntza-eskaerak gehitu diren arren, Sahararekiko elkartasunak ez du behera egiten, Andoainen ez behintzat, eta pozgarria zaigu errealitate hori".

Sanzek zein Erkiziak oso zail ikusten dute Saharako herriak burujabetza lortzea epe motz edo ertainera, nazioarteko komunitatearentzat Maroko estatu zapaltzaile eta giza eskubideen urratzaile gisa ez, baizik eta aliatu geo-estrategikotzat jotzen dutelako. Baina analisi hori kontuan hartu arren, ez dute etsitzen, eta elkartasunaren bideari eusteko konpromisoarekin darraite, inurrien moduko lan eginez, eta sinetsiz munduan, behingoz, arrazoi humanitarioek eta justiziazkoek nagusitu beharoko lirakeela.

Behin elikagaien bilketa kanpaina atzean utzi ostean, Hurria Saharako kideek bertso-saioa antolatzeari ekingo diote. Honaino egindakoa bikaina izan da.



Brahim eta Bay Saharako herrikideak Andoainen egonaldia egiten ari dira, osasun arazoak tarteko. AIURRI

"Sahara aldera itzultzeko asmoa daukagu"

TECBER BRAHIM MAHMUD ETA CHAIA BAY ALIAN SAHARAKO HERRITARRAK 1976az geroztik Aljeriako basamortuan kokatzen diren errefuxiatuen kanpamenduetatik etorri dira; Tecber Awserd herritik, eta Chaia Smara herritik

Xabier Lasa ANDOAIN

34 urtekoak dira, eta hilabete batzuk daramatzate Andoainen. Bay, Habub izeneko umea eskuetan zuela atera zen Saharatik; bigarren umea Extremaduran zela ekarri zuen mundura, hara iritsi baitzen lehenbizi. Brahim, aldiz, bakarrik heldu da Euskal Herrira; han Awserd herrian 11 eta 7 urteko bi ume utzi ditu, "telefonoz mintzatzen naiz berarekin, eta galdezka daukat, ea noiz itzultzen naizen. Laster, erantzuten diet".

Brahim eta Bayri jaioterritik honako bidaian bizi izandakoa kontatzerik nahi ote duten galdetzerakoan, azalpenik ez ematea nahiago dute. "Oso latza" izan dela diote, beste xehetasunik ez dute eman nahi izan.

Familia eta jaioterrria zergatik utzi dituzten atzean azaldu du Brahimek: "Osasun kontuek ekarri gaituzte hona; Bayk bizkarrezurra gaizki dauka, eta neuk belaunean arazo larria daukat. Euskal Herrian tratamendua jaso eta, onbidean jarri

bezain pronto, berriro itzultzeko asmoa daukagu". Munduko errefuxiatuen eta migratzaileen eskubideak defendatzen dituen ZEHAR (CEAR) erakundearen laguntzarekin heldu dira Euskal Herrira.

Andoainen ezagutu dute elkar, eta lauak, bi helduak eta bi haurrak, etxe berean bizi dira orain. Pozik daudela dio Brahimek, "egonaldia eramangarriagoa egingo baitzaigu elkarren arri-muan". Migratzailearen patua bizi dute: etxetik urrun eta leku

arrotzean bizi den herritarren ziurtasunik gabeko bizimodua, alegia. "Horrexegatik, berebiziko garrantzia edukitzen du gertu edukitzea hizkuntza, ohiturak eta kezka berdintsuak partekatzen dituen jendea. Zorionekoak gara alde horretatik".

Techer Brahimek goiza Donostian igarotzen du gaztelaniazko klaseak jasotzen; Chaia Bayk etxean umearen zaintzan eta etxeko lanetan, eta, arratsaldeetan, Zumea plazara hurbiltzen dira zenbaitetan, Habub ikastolan egin dituen lagunekin jolasteko gogoz egoten baita.

Azken horrek herritarrekin harremanetan jartzeko apenas eduki dutela aldarerik aitortzen du: "Denbora behar izaten da konfiantza pixka hartzen joateko, eta bertakoen edozein keinu asko estimatzen du kanpotik heldu denak. Nire kasuan, Udane Aita Larramendiko andereñoa, Amaia gizarte zerbitzuako langilea eta Amaia hiribuseko langilea, hiru pertsona horiek gertutik ezagutzeko aukera eduki dut; hirurak ere modu zoragarrian ari dira jokatzeko gurekin".

Bakartasun sentimendua, hausten

Kostatzen ari zaie gizarte arrotzean bizitzearen eta babesgabetasunaren sentsazioak arintzen, eta, horrexegatik, Bayk egundoko pozaldia hartu zuen orain aurretik Miren Erkizia Hurria-Sahara elkarteko kidea kalean ezagutu izanagatik. Erkizia azaldu du nola izan zen elkar topo egitea: "Saharako emakumeek soinean eraman duten meljfa jantzi koloretsu tradizionalarekin ikusi nuen kalean, eta "zu sahararra al zara? galdetu nion, atrebentziarekin. Eta baietz erantzun zidan". Bayk erantsi duenez, biak ere begiratu konplizeak gurutzatu, eta emoziozko malkotan lehertu ziren. "Saharako herriaren berri daukan jendea munduan topatzeak, ez dakizue ondo zenbat asebetetzen gaituen! Gu ez gara lotsatzen sahararrak izateaz, eta meljfa jantzita nahita ibiltzen gara kalean, Saharan gatazka

"PERTSONEN AURKAKO MINEK UMEENGAN DUTEN ERAGINA DA LATZENA OSPITALEAN"

politiko larria bizi dugula eta bertakoak askatasunaren eta bakearen ameslariak garela adierazteko".

Erkizia euskal herritarrek eta sahararrek azken hamarkadetan bizi izan duten aparteko senitartekotza baieztatzen du. "Euskal Herritik erakundeen ordezkariak eta herritarrek bixitan askotan joan izan gara. Eta hori baino ariketa pedagogiko eraginkorragorik ez dago sahararrek bizi duten injustiziaz kontzientzia hartzeko, eta gero Euskal Herrian haien alde jarduteko. Haien alde lan praktikora jotzen dugu, eta premioak dituzten mota askotako artikulua eskura jartzen dizkiegu: elikagaiak, botikak, jantziak...". Bayk gehitu duenez, ez da harrizkoa izaten bere lanpostuan Osakidetzako ikurra daramaten jantziak edo kalean Ertzaintzaren autoak ikusteak.

Itzultzea, helburu

Saharako gazte askok jaioterrira utzita munduko beste herrialdeetara bidaiatzen dute ikasketak edo oporraldiak egitera. Goiz ala berandu, ordea, itzuli egiten dira gehienak-gehienak. Errefuxiatuen kanpamenduetan bizi duten egoera larria beste herrialde horietako "luxuzko" bizimoduarekin alderatzeko aukera edukitzen dute. Behar bada tentaldia eragingo die mundu zabalean ikusten dutenak, baina itzuleran besterik ez dute pentsatzen.

Horretan dira bi elkarrizketatuak; etxeratzeotan, beren osasuna sendatze bidean jarri bezan pronto, alegia. Lehenak bere herriko udaletxean lan egiten du, eta bigarrena erizaina da Smarako herriko ospitalean. Bi arrazoi daukate itzuli nahi izateko: "Familiarekin berriro elkartzeko berebiziko gogoia edukitzeaz aparte, herrikideen zerbitzura dauden bi lanpostu horietara itzultzeko konpromisua sentitzen dugu. Guztiok familia bat izatearen sentimendu kolektiboa daukagu; gerran, Marokoko gobernuari berdin izango zaio bere gazteak hiltzea, baina, guretzat, bat bakar hiltzea familia-tragedia gisa sentitzen dugu".

Alde horretatik, mendebaldeko herrialdeetan ohikoa den afrikar jatorriko migrazioaren fenomenoak, baditu berezitasunak Saharako herritarren ka-



Saharako kanpaleketako herrialde ezberdinetatik datoz biak. Haiekin batera Hurria-Saharako Miren Erkizia. AIURRI

suan. “Iruditzen zaigu migrazio gehien-gehiena etorkizunean bertan geratzeko asmotan etorria dela. Andoainen esate baterako, Marokoko migrazio dezentea ikusten da; emakume bat gure bizilaguna da, eta lehengoan garbi adierazi zigunez, berak eta bera bezalako askok ez daukate itzultzeko batere pentsamendurik”.

Elkarrizketa honaino iritsita, ia derrigorrezkoa zaigu bi sahararrei galdetzea ea zer moduz moldatzen diren Andoainen bizi diren marokoarrek. Brahimek erantzun du: “Marokoarren artean denetariko iritziak topa ditzakezu. Baina guk ondo bereizten dugu Marokoko gobernu zapaltzailea, eta, gobernu horren politikak eragindako miseria sozialagatik migratzea erabaki duten marokoarrak”.

Gatazka odoltsuaren ondorioak

200.000 bat pertsona bizi dira Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan; basamortu babesgabea bizi ere, muturreko baldintza klimatologikoak jasanez: 50 graduko beroaldiak, haieka-ekaitzak... Bizi-baldintza horiei gehitu behar zaizkie 2020ko urriaz geroztik Fronte Polisarioaren eta Marokoko ejertzioaren artean berpiztu den gerra eta bere ondorio odoltsuak. Biek gertu-gertutik bizi dute Saharako errefuxiatuen bizimodu latza.

Beharbada, Bayk bizi du eguneroko errealitatearen arpegi-rik krudelena, erizaina den

aldetik: “Dauzkagun baliabide teknikoak ez dira punta-punta-koak, baina berebiziko eginahala egiten dugu herrikideen ongizatea hobetzeko. Pertsonen aurkako minaren batek hankak edo besoak moztuta datozenak, eguzki-galdak zorabiatutakoak, sugeen hozkada jasandakoak eta abar artatzea egokitzen zait. Latzena, pertsonen aurkako minen eragina izaten da, umeak direnean, batik bat. Izan ere, Marokoko ejertzitokak 2.700 kilometroko horma militarren inguruetan eta sahararrek askatutako eremuetan milaka mina ezarrita dauzka, eta euri-jasa bortitzek sortzen dituzten erreken menpe geratzen dira; horrela, errekek minak basamortuko hondarreen edozein lekuetara sakabanatzen dituzte”.

Edozein formatan fabrikatzen dituzte minak; jostailuen itxura ere hartzen dute, eta Bayk bere herrialdeko haur ugari ikusi izan du gorputzeko atalen bat faltan: “Iraganean mingarriak egiten zitzaizkidan halako giza tragediak, baina, orain, ama naizen aldetik, bereziki sufritu egiten dut, ezin naiz ohitu errealitate horretara, osasungintzako profesionala izan arren”.

Oraindik orain, ur-putzura erori zen bost urteko Rayan marokoarra etorri zaio gogora Bayri. “Marokoko gobernuak egundoko baliabideak erabili ditu haurra erreskatatzeko; propaganda ariketa hutsa izan da

hori, haurren biziarekin oso sentibera dela mundu osoan zabaldu nahi izan baitu. Jarra horri kontrajarriz, ordea, ez dio batere axolarik Saharako haurrak erailteza”.

Biek ala biek erantsi dutenez, Marokoko Mohamed VI. monarkaren erregimenak eginahalak eta bi egin izan ditu beti, Sahararekin daukan gatazka ezkutatzeke, eta nazioartean ez zabalteke. “Gerra piztuta dago 2020ko urriaz geroztik, eta hilketak izaten ari dira borrokaldi militarretan nahiz Marokoko hegazkinek populazio zibilaren kontra egiten dituen bonbardaketetan, baina inondik ere ez zaio interesatzen munduak jakin dezan gertatzen ari dena. Okupatuta dauzkan Saharako lurraldeetan ere gure herrikideen kontrako zapalkuntza latza ematen ari da polizien eta kolonien eskutik (atxiloketak, torturak, mota guztietako bazterkeriak...)”.

Nazioarteko komunitateak, eta, bereziki, AEB, Frantzia eta Espainiako gobernuen jokabide historikoak sahararrei amorruta ematen dietela azpimarratzen dute elkarrizketatuek. “Giza eskubideen defentsaren gainetik interes geo-estrategikoak hartzen dituzte aintzakotzat, eta Maroko ezinbesteko aliatutzat jotzen dute. Epailleek azken aldiaren bitan adierazi diote Europako Batasunari Marokorekin ezin duela hitzarmen ekonomikoak egin arrantza-bankua edo

Adierazpen instituzionala

Andoango Hurria Sahara elkarteak adierazpen instituzionala proposatu du Andoango Udalak otsailaren 24ko udalbatzan azter dezan. Otsailaren 27an, saharar herriak Saharako Estatuaren (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa-RASD) sorreraren 46. urteurrena ospatuko du, eta egun seinالاتu horren harira aurkeztutako adierazpena da. Aldi berean, bi eskaintza egiten dizkio Udalari: Batetik, adierazpena onartuz gero, nazioarteko erakundeei helaraztea. Eta bestetik, otsailaren 25etik 28ra Saharako bandera udaletxeko balkoian zintzilikatzea.

Hurria Sahara Elkarteak udaletxean aurkeztu duen idatzian, 1975etik luzatzen den Mendebaldeko Saharako gatazkan lurralde okupatuetan bizi diren biztanleek eta baita Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan bizi direnek giza eskubideen urraketak pairatzen dituztela gogoratzen da, eta azken aldiaren gertatutako zenbait gertakizun aipatzen dira. Adierazpen osotik nabarmenena, honakoa: “Berresten dugu Fronte Polisarioa dela Saharako Herriaren ordezkari legitimoa eta bakarra, NBEK eta nazioarteko komunitateak hala onartuta. Berritro salatzen dugu Marokok Mendebaldeko Saharan duen presentzia legez kanpoko dela, eta ezin duela eragin juridiko edo politikorik izan saharar herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidea kaltetzeko. Baieztatzen dugu Mendebaldeko Sahara Lurralde Ez Autonomoa dela, Nazioarteko Zuzenbidearen menpekoa, inoiz ez da Marokoko Erresumakoa izan, eta, horregatik, Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa bertan behera uzteko eta Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauzatzeko ahalbidetzeko exijitzen diogu.

Marokoko Erresumari exijitzen diogu saharar preso politikoak eta kontzientziako presoak berehala aska ditzala eta kontrolatzen dituen espetxeetan giza eskubideen urraketak eten ditzala, presoaren osotasun fisikoa eta psikikoa bermatuz. Era berean, elkartasuna adierazten diegu haien familiei.

Erabat gaitzesten dugu Marokoko Gobernuak bere itsas eremua Mendebaldeko Saharari zuzenean eragiten dioten uretan ezartzeko hartutako aldebakarreko erabakia, Nazio Batuen Erakundearen Itsas Eskubideei buruzko Konbentzioan adierazitakoa eta Marokok onartu duena urratuz.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Mendebaldeko Saharan Marokoko Gobernuak emandako epaiak gorabehera, baliabide naturalen espoliazioa salatzen dugu, eta zonaldean jarduten duten enpresei nazioarteko zuzenbidearekiko eta sahararren eskubideekiko errespetua exijitzen diegu, interesatuei (enpresei eta herrialdeei) Saharako Herriaren ordezkari legitimoarekin, Fronte Polisarioarekin, negoziazioei ekiteko eskatuz.


Nazio Batuen Erakundeari eskatzen diogu lehenbailehen susta dezala Mendebaldeko Saharako gatazkan konponbide justu eta behin betikoa, eta irtenbide hori erreferenduma eginez saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea praktikara eramatea da”.

fosfatoaren erreserbak ustiatzeko, horiek Sahararenak direlako, baina ez diote kasurik egiten”.

Bestela ere, Marokok neurria ondo hartuta omen die nazioarteko herrialde horiei: “badaki nola presionatu haiek; esate baterako, nahi duenean, Espainiari mugak irekitzeko mehatxua egiten dio. Espainiaren jarrera egiten zaigu mingarriena guztien artean, 1976an Marokoren esku utzi baikintuen, eta Nazio Batuen Erakundetik planteatu izan den

konponbidearen aurrean berak baitauka erantzukizunik handiena”.

Nazioartean panorama etsigarri hori ikusita, ea itxaropena ez zaien agortzen ari galdetuz gero, ezezko biribilarekin erantzuten dute biek. “Ez zaigu beste erremediorik geratzen. Gu biok Tindufeko kanpamentuetan jaiotako belaunaldikoak gara. Sekula ez dugu Sahara aske bat ezagutu, baina badakigu gurekin dagoela justiziaren eta giza eskubideen defentsa”.



Berdez, oheen okupazioa. Urdinez, UCItako okupazioa. Gorritz, hildakoen kopurua. Zazpi egunetako batazbetekoa, guztietan. C19ANALISIA

COVID19ak eragindako heriotza-kopuru kezkarria

Astez asteko datuei erreparatuta, astelehen honetan eman dutena urteko daturik txarrena izan da

Erredakzioa ANDOAIN

Urtarrilean seigarren olatuan murgilduta geunden, bete-betean. Memorian bizi-bizi gordetzen genituen anbulatorioen inguruetan sortzen ziren ilara luzeak. Azken asteetan, joera aldatuz joan da, eta, dagoeneko, neurri murriztaile ia guztiak kendu dituzte. Normaltasun berri baten antzekoa bizi dugu otsailen sartuta, baina bada kezka sortzen duen datua: hildakoena. 2022ko aste txarrena igaro dugu, 108 lagun hil baitziren otsailaren 7tik 13ra. Azken asteetako beherunzko joera errotik moztu da.

Datuen analisisan, Urko Vallejo etengabeko lana egiten dihardu. Hildakoen kopurua hain handia izanik, iritzi zorrotza argitaratu du: "Osasun-larrialdia bertan behera uzten dute, eta horrekin, ia neurri murriztaile guztiak. Konfinamenduaz geroztik hildako gehien izan ditugun astean. Norbaitek azalpenak eman beharko lituzke".

Beste hausnarketa bat ere utzi zuen, lehenxeago: "Osasun-larrialdia abenduaren 2an berrezarri zuten, orain baino ia lau aldiz hildako gutxiago zeudean".

Datuak

Heriotzak

2022/02/13	108
2022/02/06	74
2022/01/30	75
2022/01/23	94
2022/01/16	101
2022/01/09	50
2022/01/02	35
2021/12/26	30
2021/12/19	38

UCI-ZIUak

2022/02/13	76
2022/02/06	91
2022/01/30	92
2022/01/23	112
2022/01/16	143
2022/01/09	142
2022/01/02	132
2021/12/26	110
2021/12/19	105



Eskola-Kirola jarduneari aritzeko musukoaren erabilera derrigorrezkoa izan da, gutxira arte. Neurria eztabaidagarria izateaz gain, keza askoren iturburu izan da. AIURRI

Maskara ikasgelan kentzeko proposamena luzatu dute

Modu progresiboan egiteko proposamena luzatu dute pediatria elkarte ezberdinek

Erredakzioa ANDOAIN

Espainiako Pediatria Elkarteak oharra argitara eman zuen, asteartean. Eta albiste guraso askoren artean bolo-bolo zabaldu zen. Eskoletan maskarak pixkanaka kentzeari buruzko azterlan baten ondorioz iritsi da ohar hori. Hausnarketa egin dute, eta barnealdean erabilera murriztea gai konplexua dela aitortu dute. Agerikoak diren arrazoiak medio: "Argi baitago transmisio-arriskua ingurune irekietan baino 15-20 aldiz handiagoa dela".

Baina modu progresiboan kentzearen aldekoak dira. "Beharrezko eraginarekin, kontu handiz aztertu beharko dugu nola egin daitekeen maskara pixkanaka ezabatze trantsizioa. Haurren infekzio-tasa txikiagoaz eta gaixotzeko arrisku txikiagoaz baliaituta, zentzuzkoa irudituko litzaiguke eskolen plataforma

erabiltzea deseskalatzearen in-paktua monitorizatzeko lehen urrats gisa".

Neurri zehatzak argitara eman dituzte

- Barnealdeetan maskarak erabiltzeko derrigortasuna pixkanaka kentzea, eta aireztapen-protokoloak indartzea, adin-taldeen ordena kronologikoari jarraituz. LH 1-2 mailatik hasiko lirateke.
- COVID-19aren aurkako txertaketa sustatzen jarraitzea, batez ere 12 urtetik beherakoetan.
- Koarentena egiteko betebeharrak 7 egunera mugatzea; positibo emandako haurrei bakarrik.

Eskolan jolas garaian musukoa kentzeko agindua indarrean sartu eta biharamunean zabaldu da pediatriaren hausnarketa.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak, eskualdera ekarrita.
- Analisisak, grafikoak, datuak.
- Atal berezia: COVID-19 | DATUAK





Beterri Saretuz ekimeneko saioa. BIRA

Beterri Saretuz ekimenak ekintza-plana aurkeztuko du

Eskualdeko eragileen artean ekosistema aitzindari bat sortzeko helburuarekin

Erredakzioa URNIETA

Beterri Saretuz 2019an jarri zuten martxan eskualdeko hainbat enpresa eta eragilek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beterri Buruntza Udalen laguntzarekin. Jardunaldi ugari antolatatu dituzte geroztik. Iaz, esaterako, egituratze-saioak eta enpresa nahiz eragileen beharrak asetzeko saioak egin zituzten: interkooperaziorako formazioa, esperientziak, parte-hartze eta ahalduntze tresnak...

Sarea egituratu eta interkooperazio praktikak martxan jartzea da atzemandako erronkako bat. Hala, osteguneko saioan ekintza plana aurkeztuko dute. Horrez gain, sareko kideen artean dekalogo bat osatzeko asmoa ere badute eta ekimenaren parte direnen arteko esperientziak trukatzeko jarraituko dute.

Ostegun honetan Usurbilgo udaletxeko areto nagusian emango dio ofizialki hasiera urteari, ekintza plana eta aurtengo helburuak aurkeztuz.

Harremanetarako:

- E-maila: beterrisaretuz@gmail.com
- Twitter: @BeterriSaretuz
- Telefonoa: Beterri-Buruntza Udalak (Andoni Egia, 688 84 95 40).



KEMEN

Mugak gaindituko dituen basoa

"Baso inklusiboa" martxan da, joan zen igandean irekiera ekitaldia egin eta gero. Aurrera Markelekin ekimenak abiatu du, eta denborarekin izena duten zuhaitz gehiagorekin aberastuko da. Laguntza aparta izan zuen Markelen familiak, igande goizean: Kemen pertsona ezinduen kirol klubeko kideena. Haiei esker Markelek bidaia eroso eta seguru egin ahal izan zuen.



KEMEN

Haatik konpainiaren hamargarren urteurreneko ikuskizuna

Ur bizitan murgildu ziren ikusleak, Haatik konpainiako dantzarien eta musikarien eskutik. Ordubeteko muntaian erritmo biziko saioa eskaini zuten, aski ariketa zaila izanik oholtzara igo zirenentzat. Hiriaren garapenak naturarengan eta pertsonengan duen eragin latzari buruzko hausnarketa da obra. Hilabete barru, Tolosan izango dute lehen saioa, eta, hortik aurrera, Euskal Herrian barrena ibiliko da Aiert Beobidek Saroben ondu duen egitasmoa.



AIURRI



Zabaleta auzoko jaitsiera, Idiazabal kaleko norabidean. UDALA

Kamioien joan-etorria hobetzeko semaforoak

"Trafikoa hobeto erregulatzeko eta eremu horretako segurtasuna hobetzeko" jarri ditu Udalak

Erredakzioa URNIETA

Kezka eta kexa iturri bilakatu da Zabaleta auzoko trafikoa. Urrutira joan gabe, aurreko astean bizilagun talde batek Aurrin bertan gutuna argitaratu zuen. Udalak trafikoa hobeto erregulatzeko eta segurtasuna hobetzeko, hiru semaforo ipini ditu. Asmoa argia da: "Kamioiak pasatzean inbuturik sor ez dadin, horrek dakarren arriskuarekin".

Lizardi kaletik Zabaleta kale-ra doan tartean bi irteera-errei jarri dituzte, bata Idiazabal kaletarantz doana eta bestea, berriz,

Zabaletarantz. Azken irteera hori erregulatzeko ipini dute semagoro berria. Bigarren semaforoa auzoko sarreran dagoen zebra-bidearen ondoan jarri dute. Eta hirugarrena, aldiz, bihurtu ondoren Zabaletatik Idiazabalera doazen ibilgailuak kontrolatzeko.

Trafikoan sortzen ziren sokak saihestu nahi dituzte, horrela: "Ez da ibilgailurik ibiliko bi noranzkoetan aldi berean auzora sartzeko errepidean, eta, beraz, ezingo dira bi kamioi gurutzatu une berean".



Jaialdiko talde eragilea, epaimahaikideak eta Andoaino alkatea, ekitaldiaren amaierako argazkian. AIURRI



Lourdes Iriondo musika eskolako kideak. UDALA

Urnietarrak Piano Jaialdian

Urnietako Lourdes Iriondo musika eskolako zortzi ikaslek parte hartu dute aurtengo Piano Jaialdian: Axel Brea, Libe Etxezarreta, Karen Duran, Oier Francia, Nahia Iñurruta, Asier Irastorza, Eneko Rosco eta Naroa Roy.

Andoaino Piano Jaialdiaren garrantzia

Funtzio garrantzitsua betetzen du jaialdiak Euskal Herri osoko eskola eta musikarien jardunari begira. Erakusleho polita da, gainera, Bastero bezalako oholtza ederrean profesionalen pareko emanaldia eskaintzeko aukera dutelako

Erredakzioa ANDOAIN

Jaialdiko saio guztiak amaitu ostean, igande arratsaldean, Deiar dar talde antolatzaileko

Myriam Ulanga, Txitzu Kastro eta Ainhoa Aiertzak jaialdiaren helburuak gogora ekarri zituzten: "Piano-jole gazteek jendaurrean

jotzen ohitu eta ikastea, segurtasuna, kontzentrazioa, memorizazio edo enpatia lantzea... dira joratu nahi diren baloree-

tako batzuk. Izan ere, pianoa ikasteaz gain lantzen diren baloreak heziketan duten garrantzia azpimarratu nahi dugu".

Poza agertu zuen asteburuan aurkezle lanetan aritu den Aiertzak, piano-joleei zuzenduta: "Ikasketa horretan, zuen eguneroko bakarkako lanean jaialdia motibazio izan bada, pozik goaz lortutakoaz".

Andoaino partaidetza handia izan da, eta haien guztien lana balioan jartzea garrantzitsua da. Hauexek, beraz, 2022ko edizioan protagonista izan diren piano-jotzaile gazteak: Anne Mateos Lopez de Etxezarreta,

Carla Barral Neila, Malen Nuño Oiartzabal, Guillermo Korta Gajate, Irati Nuñez Larrea, Nagore Sanchez Hernandez, Madi Azpiroz Roca, Kai Etxeberria San Miguel, Haizea Garcia Cordero, Laida Gaston Etxezarreta, Leire Nuñez Larrea, Izar Sukunza Etxebeste, Nora Urtasun Vicente, Alaia Zalakain Garcia, Odei Jimenez Arizala eta Ander Villar Amores.

Saria Uxue Ricon urnietarrari

Luis Fraca konposizio sarian Uxue Ricon Ulanga urnietarrak jaso zuen sari nagusia. Sortzaile lanetan trebe dabil, beraz.



AIURRI

Sarmiento sari berezia

Javier G. Sarmiento interpretazio sari berezia Andoaino Piano Jaialdiko lehiaketetako bat da. Sarmiento bera, gainera, Basteron izan zen. Argazkian, ezkerrean ari da. Lehiaketan hainbat andoaindarrek parte hartu zuten: Maddi Nuño Oiartzabal, Leire Hernandez Dominguez,

Maier Ortega Barbero, Oihane Ulanga Etxeberria eta Ashley Michelle Castillo Chacon. Horietatik saria lortu zutenak Ulanga, Hernandez eta Castillo izan ziren. Argazkia sari-banaketa ekitaldikoa da.

Nekazal giroko inauteria

Leizotz aldean ibili ziren axeriak, aurreko asteburuan. Inauteri giroko ospakizuna izan zen, etorriko diren ekitaldi gehiagoren abiapuntua. Izan ere, asteburuan kaldereroak ospatzekoak dira Andoainen. Eta datorren astean inauteriak, ostegunean hasita



Axeriak Leitzarango sarbidean dagoen Antzizar eta ondoko etxeetako bizilagunekin batera. AIURRI



Engraxi Zugasti, Baltzuketa baserrikoa. AIURRI



Ixiar Oiartzabal, Izaskun Otaño eta Izaro Tena, Garagorri baserrian. AIURRI



Mizpiradi sagardotegiaren parean Orratzakoa izeneko dantza-jolasa eginez. AIURRI

"Edonork parte har dezake Kaldereroen kalejiran"

JESUS IBAÑEZ ANDOAINGO KALDEREROEN KONPARTSA Kaldereroen konpartsa Andoainera iritsiko da, larunbatean

Xabier Lasa ANDOAIN

Nondik nora ibiliko zarete larunbat honetan?

Berrozpeko jolastokian geratu gara, 17:00etan. Aspaldiko usadioari jarraituz, konpartsa Juan Bautista Bataiatzailea zahar egoitzara abiatuko da zuzenean. Bertan, bizpahiru pieza joko ditugu Joxe Mari Oiartzabalek zuzenduta, bertan bizi diren egoiliarren eta langileen aurrean. Bertakoek asko estimatzen dute bisita, eta guretzat ere emozio bereziko aldartea izaten da.

18:00etan Goikoplazan kanpaldia ezarriko da, sua piztuta. Udal Musika Eskolako helduen abesbatzak konpart sarekin bat egingo du bertan, Katrin Iturralde zuzenduta. Bospasei abesti interpretatuko ditugu plazan, 80 kiloko ingudeak markatzen duen erritmora. Ondoren, Zumea plazarako bidea hartuko dugu.

Konpart sarearen karrozan doazen erregina eta bere dama zuekin izango dira, noski?

Bai, eta jakin izan dugunez, Erreginak Hungariatik hiru laguntzaile berezi ekartzeko asmoa omen dauka; Jexuxkovich Ibañezchenko, Josefín Antoniet Wellova eta Luzianof Molotof dira horiek. Herrian azken hilabeteetan gertatu diren gorabehera batzuei errepaso egiteko gogoz omen datoz, ironia eta kritika erabiliz.

Konpart sako kide izan nahi duenak, zer egin behar du?

Ekitaldia irekia da eta edonork parte har dezake. Entsegu bakarra egingo da, ostegunean 19:00etatik aurrera, Basteron. Ongietorria izango da azaltzen den edonor.

Afari herrikoia ere antolatu duzue. Errekaburu elkartean egingo da. Honako telefonoa jarri dugu, izena emateko: 679 043 812.

Konpart sak ezinbestekoa du musika, eta Gora Kaletxiki txarangak bete izan du arlo hori beti.

Halaxe da. Ezinbesteko hitzordua da guretzat Kaldereroena. Azken bizpahiru urte gorabeheratsuak izan ditugu Luxio Aranburu, Jose Luis Fernandez "Fitero" eta Pako Bidasoro kideren he-



Jesus Ibañez. AIURRI

riotzagatik batik bat, eta gainera pandemia egoerak ere bere ibilbidea denbora puska batean etetea derrigortu digu. Instrumentu jole berriak, gazteak zein helduak, gehitu zaizkigu azken aldian, eta pozik egoteko moduan gaude.

Zenbat doinuk osatzen dute zuen errepertorioa?

Kaldereroen kulturaren ezagunak diren zazpi pieza: *Hungariar Kaldereroen konpartsa*, *Kalderero hungariarrak lanean*, *Hungariar kaldereroen koroa*, *Hungariar kantua*, *Begi urdin bat*, *Gabiltza*, eta, *Andoaingo Kaldereroak*. Joxe Mari Oiartzabalek konposatutako pieza da azken hori, espeziala kalejiran jotzeko.

Kaldereroen tradizioari Andoainen eutsi diozuen artean zaude. Herrian errotuta dagoela esango zenuke?

Donostian edo Tolosan dagoen bezainbat ez, egia esan. 80ko hamarkadan tradizioa abian jarri zenetik gorabeherak eduki ditu, eta ederki kostatzen ari da herritarren festen agendan sustatzen. Hasierako urteak nahiko indartsuak izan ziren Ontza elkartean babesean aritu ziren Felix Martinez de Lezea, Patxi Mendikute, Txena Arozena, Imanol Etxeberría, Joseba Arabaolaza eta beste zenbaiten eskutik. Baina apaltzen joan zen urteen poderioz, herriko beste ekitaldi batzuen antzera. Ahal dugun neurrian ari gara indarberritu nahian, merezi duela sinetsita, inauterien testuinguruan egoki kokatzen dena.



Imanol Ansa Setien sagardotegiaren kanpoaldean, astelehen arratsaldean egindako elkarrizketan. **AJURRI**

“Galtzeko gutxi dut finalean, eta irabazteko asko”

IMANOL ANSA ERREMONTISTA

ERREMONTIA Buruz Buruko lehen finala jokatu du Imanol Ansa larunbatean Endika Barrenetxearen aurka, eta hernaniarra da faboritua

Andoni Urbistondo URNIETA

Setien sagardotegi ondoko etxean bizitzen hasiko da laster Imanol Ansa (Urnieta, 26 urte). Buruz buruko final handia jokatu du larunbatean, bere lehenengoa. **Buruz Buruko txapelketako lehen finala jokatu duzu larunbatean, eta finalerdia jokatu gabe, Urriza lesionatu baitzen. Nola bizi izan duzu egoera hori?**

Beno, ez da nik nahi nuen modua, eta, noski, Urrizak nahi zuena ere ez. Lehen partida Ander Goi-koetxea herrikidearen aurka

jokatu nuen. Arraroa izan zen, asko entrenatu gabe, eta tentsio puntu batekin. 30-17 irabazi nion, nahiko ondo, eta Urrizaren aurka neukan finalerdia. Soleo giharean mina hartu zuen, eta ezin jokatu. Itxaron dugu, baina ez da posible izan. Pena dut, bera gainditzeko maila badaukadala pentsatzen baitut. Urrizari ez zaizkio partida asko geratzen erretiroa hartu aurretik, niretzat oparia zen eta lastima izan da. Pozik nago, noski, dena den, finaleko txartela lortuta.

Urriza zure eta erremontista askoren mamua izan da. Ze sentsazio bizi izan zenuen finalerdirik ez zuela jokatu jakin zenuenean?

Ba hasieran, lasaitasuna. Urriza menderatuz gero, lesionatu zelako irabazi niola esango zidaten, eta galduz gero, herren egonda ere irabazi egin ninduela. Pena da, Urriza erreferentia da niretzat, bere mentalitatea-gatik. Alderaketa bat egin behar ko banu buruz Rafa Nadal tenislari ezagunaren antzekoa dela esango nuke. Ni Urrizaren

buruko indar hori lortzen saiatzen naiz, onenaren pare izan nahi dut.

Horrelakoak pasatzen dira.

Pilotariak erabakitzen du hala-koetan. Udako buruz burukoan ere lesionatu nintzen ni. Urrizak beldurra zeukan lesioa larritze-ko, eta berak hartutako erabakia izan da.

Urriza zezena da, baina Endika Barrenetxea ere samurra ez.

Bai, Endika gazteon irakasle izan da. Aholku pilo bat eman dizkigu. Batzuk hartu dizkiogu, beste batzuk ez hainbeste. Asko jokatzeko, Urriza sufriarazi duen erremontista izan da, eta oso final gogorra daukat. Bere kirol unerik onenean dagoela esango nuke, 30 urterekin, bi txapel irabazita. Zaila.

Ze dohain ditu?

Oso pilotari luzea da, azpiko posturatik batez ere. Errebotean jartzen du pilota nahi gabe, eta hori da nire gabezia handiena. Edozein pilotara justu iritsita ere errekurtsio hori dauka. Atzelaria izanda bote lasterlean, bi paretak eginez ederki moldatzen da, oso pilotari tekniko eta kon-pletoa da.

Ahuluneraren bat ba dauka?

Endikaren kasuan garai batean bote korridoa zela esango nizu-ke. Baina azken aldia horretan ere oso txukun ari da. Akats gutxi-ko jokalaria da.

26 urterekin lehen finala buruz burukoan. Zer esan nahi du zuretzat?

Egonkortzen ari naizela maila gorenean. Final batzuk jokatu ditut, gauzak gero eta hobeto egiten ari naiz, eskarmentua hartzen, eta lasaitasuna irabazten, une kritikoa. Erremontean esperientziak asko balio du, eta kolpez kolpe aurkaria puskatzea ez da hain erraza. Pilota ondo kolokatzeko asko balio du; pazientziak ere bai. Sarri pilota suabe kolpatuz gero, indartsu kolpatuz gero baino min handiagoa egin dezakezula jakitea... Ari naiz ikasten, urtez urte.

Zer egin behar duzu ondo, finala irabazteko?

Hori erraza da: sakea. Buruz buru erremontean sakea %60 da. Ondo eginez gero, dominatu. Gaizki egiten baduzu, galtzaile ia beti, defentsan hasi beharra. Aukerako pilota dudanean opa-ririk ez egitea da gakoa, tantoa bukatzea. Endikak sakea hartzen duenean onartu behar dut takeda bat egin diezadakeela. Une

horietan eustea, ez etsitzea ezin-destekoa da.

Juanenearen aurka jokatu zuen finalerdian aise nagusitu zen Endika.

Bai, baina sakean ikaragarri asmatu zuen, eta ezin da ondorio handirik atera partida horretatik. Larunbateko finalean ere antzera sakatzen badu, aukera gutxi izango dut. Baina tira, bi egunetan sakean hain distiratsu jardutea ere ez da erraza. Presio puntua ere edukiko du finalean, nik ere niri irabazi egin behar zaidala erakutsi dut, eta Juaneneak baino zailtasun gehiago ematea espero dut. Zalantza puntu bat badaukatu, buruz buru ez baitut markagailu estuko neurketarik jokatu, eta finala hala izatea espero dut.

Buruko indarrak badu bere garrantzia. Esango nuke Barrenetxeak

Juanenea bere onetik atera zuela bere eraginkortasunarekin, eta partida bukaeran ere esan zuen, sakean nahi gabe asmatu zuela, bazekiela min handia egingo zuela.

Beno, hemen bakoitzak bere armak erabiltzen ditu irabazteko. Endikak *pichon* esaten dit aldageletan, txantxetan. Behin irakurri nion elkarrizketa batean Urrizari lehen aldiz irabazteko zortzi partida behar izan zituela, eta niri Endika bera menderatzeko beste hainbeste beharko nituela esan zuen. Hirugarren aukeran irabazi zion, beraz. Berak *pichon* esaten didanean botatzen diot, lasai egon daitekeela, ni bezalako hasi berri batek ezin diola berari irabazi. Nik galtzeko gutxi dut, eta irabazteko asko. Endikaren kasuan kontrakoa dela esango nuke, nire aurka galtzea kolpea handi samarra litzateke berarentzat, eta horrekin zirikatzen saiatuko naiz.

Nola bizitzen dituzu partida garrantzitsuetako atarikoak?

Txapelketa luzeetan, udako buruz burukoan, adibidez, tentsioa pilotzen joan izan naiz txapelketa bukaera aldera. Hilabete eta erdi zaintzen, lehiatzen, lesionatzeko beldurra... Gastatuta iristen zara bukaerara. Orain

"FINAL BATZUK JOKATU DITUT, GAUZAK GERO ETA HOBETO EGITEN ARI NAIZ"

partida bakarria irabazi, eta finalean nago, gutxi entrenatuta gainera. Ez daukat buruko nekerik, fisikoa ere ez. Opari bat da finala, ezustekoa emateko aukera on bat. Baikorra naiz, eta ondo iritsiko naiz.

Urduri jartzen zaren horietakoa al zara?

Bai, tentsioa sumatzen dut. Lau final galdu ditut dagoeneko, eta entzun izan dut komentarioren bat, finaletan urduri jartzen naizela. Nor ez, ezta? Barrenetxea bera ere jartzen da. Normala da. Tentsio horrek on egiten nauela esango nuke. Bai, lau final galdu ditut dagoeneko, baina gai naiz datu horri buelta eman eta beste final bat bilatzeko. Hor egon nahi dut, txapela jantzi, orain dauden izarrak ez direlako betirako egongo.

Lau final, lauak galdu. Arduratzen al zaitu?

Bigarrena edo hirugarrena jarraian galdu nuenean amorratu nintzen. Ea kanpotik hitz egiten zutenek arrazoa ote zuten. Galdu nuela onartu nuen, baina noren kontra? Azken hamarkadan papurrak utzi ez dituen erremontistaren aurka. Ezkortasuna baikortasun bilakatu dut, eta kendu dizkidan txapelak etorkizunekoak izango direla pentsatu, irakaspen prozesu horri esker.

Nola ikusten duzu larunbat gaua, txapela jantziko bazenu?

Egin behar dudana zerbait da, txapela janztea. Kosta ala kosta lortu beharreko zerbait. Ezin dut etsi lortu arte, eta iritsiko da. Ez dakit noiz izango den, larunbatean, udan, 2022an edo geroago, baina lortuko dut, eta lortzen dudanean sekulako ilusia egingo dit.

Lehen finala, buruz buru, eta gertukoak Setien sagardotegian lanean: Eugenio osaba, Lourdes ama, Xabi anaia... Marka da gero.

Bai, horrela egokitu da. Sagardotegi garai betean, larunbat eguerdian, lana lepo... Euskal Telebistak ere finala emango du, eta etxean ikusteko aukera izango dute. Ea seme, anaia edo iloba txapela jantzen ikusten duten.

"NOIZBAIT LORTUKO DUT TXAPELA ETA LORTZEN DUDANEAN SEKULAKO ILUSIOA EGINGO DIT"



Senior mailako taldea, denboraldi honetan ateratako argazkian. J.M.IGARATEGI (BIKOITZ)

Igoera eskura dauka Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak

ESKUBALOIA Igoerako postua ziurtatzeko puntu bakarrera dago Leizaran senior mailako taldea

Erredakzioa URNIETA

Duela aste batzuk, Aiurri beretan nabarmendu genuen Andoingo taldearen denboraldia. Eta joera on hori geldiezina da. Hamabost jardunaldi eta gero, Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak hamalau partida irabazi ditu. Aurreko asteburuan lortutakoarekin aurrerapausu handia eman dute, lehen mailarako igoera bidean. Gauzak ondo, eta datorren asteburuan Bergararen aurkako partidaren berdinketa lortuz gero, igoera ziurtatuta izango luke.

SENIOR MAILA, 2. MAILA

13. JARDUNALDIA

Leizaran-Urola **44-26**

2. LURRALDEKO TXAPELKETA

1	Leizaran	28 puntu
2	Munttarpe	26 puntu
2	Txingudi	22 puntu
4	Pulpo	15 puntu
5	Hernani	14 puntu
6	Bergara	10 puntu

DATORREN PARTIDA

Bergara-Leizaran **Lar, 19. 17:30**

7. jardunaldian Leizaran taldeak 37-25 garaitu zuen Bergara.



BURUNTZALDEA IKT

Igerilari gazteen maila bikaina

IGERIKETA Kerman Miguel, Urko Azpiazu, Ander Martinez edota Liher Albizu benjamin mailako igerilariak bikain aritu ziren. Eta gauza bera esan daiteke alebin mailakoez. Oihan Matute, Asier Barcena eta Ane Meyer maila onean aritu ziren. Guztiak ere Hernaniko igerilekuan aritu ziren. Pozik daude Buruntzaldea IKT taldeko kideak.



Luz Ardideneko ikuspegia. VALLEESDEGAVARNIE

Luz Ardidenera irteera antolatu du Zanpatuz elkarteak

ESKIA Martxoaren 5ean izango da, eta dagoeneko San Juan plazan dagoen Kantoitabernan eman daiteke izena

Erredakzioa URNIETA

Alpino, snow edota raketekin egun pasa polita egiteko aukera eskaini du Zanpatuz elkarteak. Martxoaren 5ean abiatuko dira Urnietatik, goizeko 06:00tan. Eta iluntzeko 19:30ak aldera egingo dute etxera itzulera. Ondo aprobetxatutako eguna izango da, beraz.

Izen-ematea zabalik

Kantoitabernan zabalik dago. Autobusaren prezioa 20 eurokoa izango da, eta hortik aurrera gastuak ezberdinak izango dira.

- Irteera eguna: Martxoak 5, larunbata.
- Busaren irteera: Matxo tabernaren aurrealdea (Idiazabal kalea, 42).
- Busa, joan-etorria: 20 euro.
- Busa eta alpino forfaita: 45 euro.
- Busa, alpino alokairua eta forfaita: 60 euro.
- Busa, snow alokairua eta forfaita: 65 euro.
- Busa eta raketan alokairua: 30 euro.
- Izen-ematea: Kantoitaberna, San Juan plazan.



UDALA

Aurretiko hitzordua kendu dute

KIROLA Osasun-larrialdi egoerari amaiera eman ostean, otsailaren 14an hasita arindu egin dira prebentzio neurriak. Hori bai, Urnietako Udalak gogorarazi duenez, "musukoa momentu oro ipinita eduki beharko da kirol instalazioen barruan. Eta bestalde, erabiltzaile bakoitzak bere toaila propioa eramaten jarraitu beharko du".



Goizez kirolari da, eta arratsaldean matematika ikaslea. AIMAR MURUA

"Aukera ikusten dut gauza handiak lortzeko"

AIMAR MURUA ANDOAINGO TRIATLETA

TRIATLOIA Eski munduan nabarmendu ostean, triatloira jauzi egin du hamazortzi urteko kirolari gazteak. Kirola du pasio, matematikako ikasketak bazterrean utzi gabe

Mikel Arberas ANDOAIN
Hasteko, zein taldetan lehiatzen duzu eta zein modalitateetan?

Aurtengoan, triatloia modalitatean lehiatzen hasi naiz, batez ere, Sprint modalitatean. Portugaleteko Alusigna Peña

Dental triatloi taldeko kide berria naiz.

Nolatan jarri zen Portugaleteko triatloi talde zurekin kontaktuan?

Pasa den urtera arte, Yepa Triatloi taldeko kirolaria nintzen, baina urrian nirekin kontaktuan

jarri ziren Instagram bitartez. Taldeko zuzendariak aipatu zidan, Alusigna taldeko partaide izateko interesa zuela. Eskaintza interesgarria iruditu zitzaidan, beraz, zuzendariarekin geratu nintzen kafe bat hartu eta gehia-

go jakiteko; guztia azaldu ostean, eta, taldearen maila ezagututa, baiezkoa esan nuen.

Zer moduzkoa da taldea?

Alusigna taldea oso lehiakorra da. Hasteko, nabarmendu beharra dago triatloiko lehen mailan lehiatzen duen taldea dela; hori gutxi balitz bezala, iaz, Espainiako txapelkunak izan ziren Distantzia Luzeko modalitatean, emakumezkoetan zein gizonezkoetan. Nire modalitatean, emaitza onak lortu dituzte azken urteetan. Aurten, aukera ikusten dut gauza handiak lortzeko.

Nola entrenatzen duzu?

Pasa den urtean Jon Unanue entrenatzaile pertsonalarekin kontaktuan jarri nintzen bere zerbitzua jaso ahal izateko, izan ere, kirolari gehiago entrenatzen ditut, esperientzia handia du. Eskarmentu handiko kirolaria dela nabari da, oso gustura nago.

18 urte ditut, asko dut ikasteko eta, oraindik, garapen bidean nagoela esan nezake. Gauzak horrela, entrenamenduak nire egoerara moldatzen ditut, gogorago edo arinago entrenatzen nau txirringarritza, lasterketaren edo igeriketaren arabera.

Nola tartekatzen dituzu ikasketak eta entrenamenduak?

Leioako kanpusean matematika ikasketak egiten ari naiz eta, zorionez edo zoritxarrez, klaseak arratsaldean ditut; gauzak horrela, normalean, klaseak eguerdiko ordubietatik arratsaldeko seiak arte edukitzen ditut. Leioatik irten bezain pronto igeriketa talde batekin entrenatzen aritzen naiz. Goizetan, berriz, ikasteko eta lasterka entrenatzeko antolatzen naiz.

Ba al duzu aurreikuspenik denboraldiari begira?

Lehenik eta behin, Espainiako txapelketan parte hartuko dut. Avilara joan behar dut apirilean Sprint modalitateko duatloian lehiatzera. Bost kilometro lasterka, hogeikilometro bizikleta gainean eta, berriro ere, bi kilometro eta erdi lasterka egin beharko ditut. Lehiatzeaz gain, parte hartzaileen maila aztertzea dut xede, nire kasuan juniorre-

tan. Epe ertaineko helburua, triatloieko Espainiako txapelketan parte hartzea da, urrian izango da.

Zein da zure ambizioa?


Elitean lehiatzea gustatuko litzaidake, ahalik eta maila altuegan. Datorren urtean 23 urtez azpiko mailan sartuko naiz, eta, beraz, Elitean lehiatzeari ekingo diot. Maila horretan eman nahi dut nire onena. Ez da batera erraza izango, baina gogo bizia dut. Fisikoki memento onean nagoela uste dut.

Arestian eskian ere lehiatzen zenuen, baina indar guztiak triatloira bideratzeko erabaki hartu duzula dirudi...

Oso gustuko dut eskiatzea, baina Alusigna taldeak egindako eskaintzari uko egitea ezinezkoa zitzaidan. Denbora luzez aritu nintzen pentsatzen. Egia da triatloian murgilduz gero, entrenatzeko ingurune egokian bizi naizela; etxetik irteera korrika edo bizikletan ibiltzen has naiteke. Bestalde, eskiaren kasuan, mugatuta bizi nintzen; urrutira joan behar nintzen entrenatzera eta denboraleak erabat baldintzatzen ninduen.

Aita kirolari handia da. Askotako zen Alusigna talde zurekin kontaktuan jarri zela ohartzen, ezta?

Nire aitak kirolari fina da, beraz, aholku baliagarri ugari eman dizkit urteetan. Berak murgildu ninduen triatloia, eskiaren eta lehiaren munduan. Alusigna talde nirekin kontaktuan jarri zenean, aitarekin hitz egiten aritu nintzen eta argi esan zidan: "Aimar ez galdu aukera hau, pentsatu gabe egin aurrera".



Eskian eta triatloian, bi kirol jardueretan trebea da. AIMAR MURUA

"APIRILEAN AVILAN JUNIOR MAILAKO SPRINT DUATLOI PROBAN PARTE HARTUKO DUT"



EUSKALDUNA

Garaipena Intxurreren aurka

FUTBOLA Emakumezkoen gorengo mailako Kopan emaitza bikaina lortu zuten Alegian, Intxurre taldea garaituz (2-5). Euskaldunak asteburu honetan aurkari zaila izango du parean, Leintz Aloña taldea. Larunbatean izango da partida Ubitarten, arratsaldeko 16:00tan hasita. Sei taldeko ligaxka jokatzen ari dira Usturbi, Mutriku, Zestoa, Intxurre eta Leintz taldeekin batera.

Bost gol partida berean

FUTBOLA Kadete mailako Kopan, Euskaldunak Touring taldea garaitu zuen (5-2). Eta talderen bost golak Ixiar Barranco lrazuk sartu zituen. Ez ohikoa da, eta nabarmentzekoa. Zorionak Ixiar! Multzo berean Urnietak Santo Tomas garaitu zuen etxean (1-0). Sailkapenean Urnieta bigarren doa, eta Euskalduna seigarren. Andoaindarrak Ubitarten ariko dira, Hondarribiaren aurka (igandea, 10:30).



ANDOAINARRA



Aiert Labayen. AIURRI

Urnieta Artola harategiak ez du hain erraz etsi nahi

ESKUBALOIA Jaitsiera faseko ligaxkan, Urnieta Artola Harategia taldea ondo lehiatzen ari da

Erredakzioa URNIETA
Galdakaoren aurkako garaipena (30-20) garrantzitsua izan zen mailari eusteko lehian. Hasieratik maila ona erakutsi zuten urnietarrek, baina aurkariak erreakzionatu eta markagailuan aurretik jartzea lortu zuten (10-11). Atsedendia on egin zuten urnietarrei eta markagailuan aldentzen hasi ziren. Partida amaituta, ezinbesteko bi puntu eskuratu eta mailari eusteko pausu bat gehiago eman dute urnietarrek.

EUSKADIKO SENIOR MAILA

JAITSIERAKO LIGAXKA


4. JARDUNALDIA
Urnieta-Galdakao A **30-20**

SAILKAPENA	
1 Muskiz	6 puntu
2 Deusto Loloia	6 puntu
3 Urnieta	4 puntu
4 Galdakao A	2 puntu

DATORREN PARTIDA
Urdaneta-Urnieta **Ig, 20. 12:30**

Urnieta Quel Abogados nesken mailako taldeak beste partida bat gehiago galdu zuen, Ereintzaren aurka (20-19). Igoerako postuei eutsi nahi badiete, datozen partidatan maila handiagoa erakutsi beharko dute.

Bideo-sorta zabala webgunean



Go!azen telesailako Iñaki Mujika



Puska Biltzea Leizotz aldean



Imanol Ansa, finalaren aurrean



Piano Jaialdiaren balorazioa, antolatzaileen eskutik

KRONIKAK KAZETARIA BEHAR DU ORDEZKAPEN BAT EGITEKO, LANALDI ERDIAN

- | | |
|---|---|
| ESKATZEN DA: | / Aktualitatearen jarrapena egitea. |
| / Euskera ondo menperatzea hitzez zein idatziz. | / Kazetari lanetan esperientzia. |
| / Lanaldean aritzeko gaitasuna. | / Maketatzeko, eta argazki eta bideoak editatzeko programen ezagutza. |
| / Iniziatiba eta enpatia. | / Sare sozialak menperatzea. |
| / Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea. | / Kobiako kamela eta kobea. |
| BALORATUKO DA: | ESKAINIKO ZAID: |
| / Urumea bailara ezagutzea. | / Kontratu: Bi hilabeterako kontratua, ordezkapenari dagokiona. |
| / Doberako bazkide izatea. | / Eginkizunari dagozkien soldata eta lan baldintzak. |
| / Tokiko hedabideak ezagutzea. | |

Bidali zure CV-a, otsailaren 23ra arte:

Baldintzak betetzen dituztenek aurretik probak egin ondoren berri sartzeko da.

Kronika

DOBERA

kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte
Larremendi 13 behe
20.120 FERNANI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 17

ANDOAIN Erakusketa

Trentxiki argazki elkartearen eskutik.

Astelehenetik ostiralera: 18:30-20:00. Asteartetan itxita. Larunbata: 10:30-13:30 / 18:00-20:30.

Otsailaren 25a bitarte. Bastero.

OSTIRALA 18

ANDOAIN Antzerkia

"Lehendakari gaia", Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza aktoreen eskutik. Txalo konpainiaren ekoizpena. 20:30, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 19

ANDOAIN Kaldereroak

Udal Musika Eskolako abesbatzak lagunduta, kaldereroen kalejira Zumea plazaraino. 17:00, San Juan Bataiatzailea. 17:45, Goikoplaza.

ANDOAIN Kontzertua

Esne Beltza & Amak. 19:00, Bastero. Sarrerak agortuta.

ASTEARTEA 22

ANDOAIN Literatur solasaldia

Yan Liankek idatzitako eta Maialen Marinek eta Aiora Jakak euskarara itzulitako "Balou mendikateko balada" aztergai izango dute. 19:00, Bastero.



Gertaera ezaguna oholtzara eraman du La Dramatica Errante ekoizpen-etxeak. ARRIAGA

URNIETA "Altsasu" antzezlan

2016ko Altsasuko gertaeretan oinarritutako antzezlan. Nagore Gonzalez, Egoitz Sanchez, Aitor Borobia eta Ane Pikaza aktoreen parte-hartzearekin. Antzezlan euskaraz izango da.

Otsailak 20, igandea. 19:00, Sarobe.

OSTEGUNA 24

ANDOAIN Inauteriak

Mozorro festa Ludotekan eta sari banaketa ekitaldia Basteron. 17:30, Maskara lehiaketa. 18:00, Txaranga kalez kale.

OSTIRALA 25

ANDOAIN Inauteriak

17:00, Playback saioa Ludotekan. 17:30, Bingo berezia Gazte Lokalean. 20:30, Gontzal Mendibil Basteron.

LARUNBATA 26

URNIETA Inauteriak

Herriko eragileak hasi dira inauteria iragartzen. Merkatarien elkarreak San Juan plazan ekitaldiaren berri eman du. Poxta Zahar gazte taldeak, bestalde, ekitaldi sorta iragarri du. 12:00, Trikipoteoa Guriatik hasita. 14:00, Herri bazkaria Egapen. 17:00, Kalejira: The Roristak.

ANDOAIN Inauteriak Egun osoan.

Korrika Batzordearen bilera

Korrika Batzordeak lehen bilera bat egin du, eta bigarren baterako deialdi irekia egin nahi du. Datorren otsailaren 21ean izango da, arratsaldeko 18:30ean hasita, Andoingo AEK euskaltegian. Gogoan izan Korrika eskualdean barrena datorren apirilaren 8an igaroko dela.



AIURRI

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

El callejón de las almas perdidas
Igandea, 20. 19:30.
Asti, 21. 19:30, 22:00.
Bella y el circo...
Igandea, 20. 17:00.

Belfast

Larunbata, 26. 19:30, 22:00.
Igandea, 27. 19:30.
Astelehena, 28. 19:30, 22:00.
Uncharted
Larunbata, 26. 17:00.
Igandea, 27. 17:00.



SINOPSIS



EL CALLEJON DE LAS ALMAS PERDIDAS

Zuzendaria: Guillermo del Toro. Gidoia: Guillermo del Toro, Kim Morgan, William Lindsay Gresham. Aktorea: Bradley Cooper, Cate Blanchett, Rooney Mara, Toni Collette, Willem Dafoe, Ron Perlman... Generoa: Drama, intriga. Iraupena: 150 minutu.

Film ezagunaren remake-a

Bizizale batek (Bradley Cooper) pitonisa (Cate Blanchett) ezagutu eta elkarrekin lanean hasiko dira, aberatsei iruzur egiteko.

1947ko "Nightmare Alley" filmaren remake-a da. Hollywoodeko ekoizpen handia da, goi mailako aktoreen parte hartzearekin.

BELLA Y EL CIRCO MAGICO

Generoa: Marrakzi bizidunak. Herrialdea: Norvegia. Iraupena: 79 minutu. Urtea: 2020. Hizkuntza: Gaztelania.

Adiskidetasuna ardatz duen filma

Bera eta Henry munduko lagunik onenak dira. Elkarrekin zirku ikuskizun bat antolatzea erabaki dute beren hiri txikian, non Ella Bellak guztiak harrutuko dituen bere magia zenbakiekin eta Henryren laguntzarekin. Baina, orduan,

Johnny dator, auzoko ume berri bat, jostailu garestiekin eta bizikleta ikusgarri batekin, Henry liluratuz.

Basterotik aditzera eman dutenez, asteburu honetan emanaldi bakarra dago. Zehazki, igandean.



Munduko Zaporeak egitasmoa aski ezaguna izan zen Andoaingo Sanjuanetan. AIURRI

“Su-arTEan, gure-arTEan”, Ongi Etorri Eskolaren eskutik

Otsailaren 17an izango da lehen hitzordua Andoaindarrak elkartean, Marokoko janaria dastatzeko

Erredakzioa URNIETA

Abian da “Su-arTEan, gure-arTEan” ekimena, Ongi Etorri Eskolaren ekimenez. Kulturak eta zaporeak uztartzeko asmoz, hila-betean behin bilduko dira Andoaingo bizilagunak elkar ezagutu eta batera sukaldatzeko. Aldiro-aldiri, familia batek bere jatorrizko herrialdeko errezeta bat sukaldatzen irakatsiko die gainontzekoei. Hala, hilaren 17an ostegunean, arratsaldeko 17:30ean hasita, Bouchrak eta El hassaniak (familia lagunak) Marokon jatorria duen janaria prestatuko dute.

Interesa duen orori besoak zabalik itxarongo die elkartek: “Andoaindarrok elkar ezagutu gaitzen, udalerriko bizitzan eta kultura gastronomikoan parte hartu dezagun, eta jatorri ezberdinetako plateraz aberasteko elkargunea sortu dezagun”. Pandemia-egoera medio, aforo

mugatu izango da. Ondorioz, izena eman behar da alde zuzenetik: andoain@ongiotorrieskolara.org helbide elektronikora idatzita edo 688 631 176 zenbakira hots eginda.



Kuskus marokoa, barazki eta tfayarekin. WIKIWAND



Ecche Homo, Van Gogh, Mona Lisa... Lagun hauen ideia mundiala izan zen. C.HIPSTER

Margolanak hizpide, aurtengo Urnietako Iñauterietan

Otsailaren 26an, larunbatarekin, egun osoko egitaraua antolatu du Poxta Zahar elkartek

Erredakzioa URNIETA

Hemen da otsaila amaiera, eta horrekin batera Urnietako Iñauterietan. Urtero legez, Poxta Zahar Gazte koadrilen elkartek hartu du, besteak beste, hitzordua antolatzeko konpromisoa. Hala, hilaren 26an, larunbatarekin, egun osoko egitaraua antolatu du, eta aurtengo gaia “margolanak” izango da.

Eguerdiko 12:00etan, trikipotea abiatuko da Guriatik, Egape Ikastolako frontoira bitarte. Bertan, 14:00tan, herri bazkaria antolatu dute I love paella catering-arekin elkarlanean. Hala, tiketak salgai daude jada 13 eurotan Xauxar eta Kantoi tabernetan, otsailaren 21 bitarte. Ildo beretik, elkartek gogorarazi du epez kanpo erosten duenak 18 eurotan eskuratuko duela bazkariko sarrera. Bestalde, arratsaldea girtzeko, kontzertua izango da herrian, The Roristak taldearen

eskutik. Urnietan ekintzak egiteko gogoz dago elkartea, eta herritarrei parte hartzeko gonbitea luzatu diete: “Jarri zaitezte sortzaile, eta atera armairuko trapu zaharrak!”.



Urnietako dendari eta merkatariek inauterian parte hartzeko afitxa partekatu dute. MERKATARIK

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Aitor
Otsailaren 18an bi urte betetzen dituzu. Muxu handia, bihotz-bihotzez amona Begoña eta aitona Mikelen partetik.



ANDOAIN / AIA
Unax Lopetegi
Otsailaren 15ean 16 urte! Zorionak eta muxuak etxekoan, Anerren eta Oinatzen partez.



ANDOAIN
Zorionak Gorka eta Anne
Gorka eta Anne lehengusuek lehenengo bira eman diote eguzkiari. Zorionak politak! Muxuak Nere, Anje eta familia osoaren partetik.



URNIETA
Zorionak Peio
Hilaren 20an 12 urte beteko dituzu. Zorionak! Ondo pasa eguna etxeko eta lagun guzietan.

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- Arantzibia 4-5, behea Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

TELEFONO ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnietak: 943 006 680.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

22. korrika

Aiurri.eus webgunean KORRIKA 2022 atal berezia

HITZKIN

🔗

Albisteak, deialdiak...

Aiurri Korrikarekin bat eginik



HELerregularizazioa mugimenduko kide dira Maialen Mujika eta Aziz Mounpe urnietarrak. PUOCHI NAH

Eskubideak benetako eskubide izan daitezzen

Martxan da HELerregularizazioa Kanpaina, Espainiako Estatuan bizi diren 500 mila pertsona atzeritar erregularizatzeko. Sinadura-bilketa abiatu dute, eztabaida Kongresuan mahaigaineratzeko. Hernanin eta Donostian sinatzeko aukera, larunbatean

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Azken balioztapenen arabera, Espainiako Estatuan 390.000 eta 470.000 pertsona artean bizi dira modu irregularrean, eta, adin txikikoa da horien herena. Horrela izanik, makina bat eskubide alboratuta bizi dira hainbat eta hainbat. Bada, egoera horri aurre egiteko, ekimen legegile bat ipini da martxan, HELerregularizazioa Kanpaina: Espainiako Estatuan 500 mila sinadura baino gehiago jasotzea du xede, ondoren, aurkeztuko den testua Kongresuan eztabaidatu dadin. Ekimenari bultzada emateko, datorren larunbatean, otsailaren 19an, kalera aterako da sinadura-bilketa hainbat herritan, baita Buruntzaldea eta Donostialdea eskualdeetan ere. Batetik, Hernaniko Plaza Berrin izango dira 11:30-14:00 artean (euria egingo balu, Atsegindegi plazan). Bestetik, Anoeta estadio

pareko tren geltokian ere aukera egongo da parte hartzeko, goizeko 10:00etan hasi eta eguerdiko 14:00ak bitarte.

Herri mugimenduaren esanetan, indarrean dagoen LO 4/2000 legearen egoitza baimenerako sarbide-sistema "murrizta eta eskasa da, eta ez dio gaur egun Espainiako Estatuan bizi diren eta lan egiten duten pertsona atzeritarren errealitateari erantzuten". Ondorioz, talde eragilearen esanetan, era irregularrean bizi diren pertsonen eskubide-sorta mugagabe bat ukatzen zaie, eta egoera hori are nabarmenagoa izan da pandemia ga-

"PAPERIK EZ IZATEA, SISTEMAREN ERTZEETAN BIZITZEA DA"

AZIZ MOUNPE ETA MAIALEN MUJIKA

raian, jendartean gizarte bazterkeria handitzeraino: "Modu irregularrean bizitzeak, guk berezkozat ditugun eskubideak ez izatea dakar, eta eskubideak guztionak ez direnean, pribilegio bihurtzen dira".

Mugak eta oztopoak

Zer da, baina, migrazio-estatus irregularra izatea eta zein ondorio ditu horrek? Aziz Mounpe eta Maialen Mujika urnietarrak mugimenduko kide dira eta argi dute erantzuna: "Hiritar izaera ez aitortzea dakar, alegia, beste era batera esanda, *paperik ez izatea*, sistemaren ertzeetan bizitzea". Ondorioz, zuzen-zuzenean oztopatzen du horrek egunerokoa, bikotearen esanetan. Esaterako, baldintza horietan bizi diren pertsonen ez dute lan eskubiderik, eta arrakala horrek makina bat zapalkuntza-egoera elikatzen ditu, hala nola: inolako berme-

rik gabeko lanaldi luzeak, egoera lazarriak, soldata prekarioak, baita pertsonen salerosketa edo eta sexu-esplotazioa ere. Horrez gain, osasun- eta hezkuntza-eskubideak murrizten ditu nabarmenki, eta, gutxi gorabehera, 150.000 haur eta gazte bizi dira irregulartasunean. "Azken batean, Espainiako Estatuan zure egoera erregularizatzea sorgingurpil makiabeliko bat da", azaldu dute Mounpek eta Mujikak, "oztopo izugarriak batabestearen atzetik lotzen dituen engranaje bat, primeran pentsatua gehiengoak lor ez dezan". Azalpena argitze bidean, adibide bat ekarri dute gogora: hemezortzi urtez gorako herritar batek hiru urte egon behar du Espainiako Estatuan lan-baimena eskuratzeko. Horrez gain, gutxienez, urtebeteko lanaldi osoko kontratu-proposamen bat beharrezkoa da lan-baimena eskuratzeko. Kontraturik gabe ez dago hori eskuratzetik, baina, era berean, nekez topa liteke lan-baimenik gabe kontratua luzatzeko prest dagoenik. "Eten-gabeko kriminalizazioa eta jazarpena gehitzen zaizkie babes legalik eta oinarrizko eskubiderik ez izateari. Irregularitatean gaudenez gero, ez gara hiritar osoak", gaineratu dute urnietarrek.

Ez ikusiarena

Pandemia hasieran, Erregularizazioa Orain (#Regularizacion-Ya) plataformak bi bider luzatu zion Espainiako Parlamentuari pertsona migratuaren ezohiko erregularizazioaren proposamena, baina ez zen, ez batan, ez bestean onartu. Halere, Mujika eta Mounpek azaldu lez, proposamena ez da atzoko kontua, izan ere, orotara, Espainiako Estatuan, sei erregularizazio-prozesu eman dira jada: lau Espainiako Alderdi Sozialistaren partetik eta bi Alderdi Popularraren ekimenez. Horrez gain, Europar Batasuneko partaide diren 17 estatutan 43 erregularizazio-programa gauzatu dira, eta, 2020ko konfinamenduan, sasoiako produktuen bilketan eta beste hainbat sektoretan lanean ziharduten etorkinak erregularizatu zituzten zenbait herrialdek, Italiak eta Portugalek, esaterako.

Hari horri tiraka, egoera iraultzeko erantzukizuna mahaigai-

Sinadura-bilketa, martxan

Herritarren parte-hartzea: Espainiako ordenamendu juridikoak duen demokrazia zuzeneko tresna bakarra erabili nahi du plataformak, hain zuzen, Herri Legegintza Ekimena. Herritarren borondate zuzena adierazten du azken horrek, 500.000 sinadurako bultzada duen lege-proposamen bati babes ematen dio, eta, ondorioz, Diputatuen Kongresua behartzen du hura eztabaidatzera, gehienez ere sei hilabeteko epean.

Alderdien eta gizarte-erakundearen artean ahalik eta adostasun zabalena sustatzeko gai den lege-testu bat aurkeztu nahi du plataformak.

neratzea berebizikoa da, bai Mounpe eta Mujikarentzat, bai mugimenduan parte hartzen duten kide guztientzat: "Badi-rudi, erregularizazioa Gobernu Zentralaren kompetentzia izanik, alde batera utzi dela gaia gainerako maila administratiboetan; alabaina, ezinbestekoa da haien rola aldaketak emateko". Bide horretan, eragile askoren babesa jaso duen plataforma da HELerregularizazioa; Euskal Herriko Bilgune Feminista, Mugarik Gabe Nafarroa eta beste hainbat erakunde eta gizarte eragile batu dira eskakizunera. "Erakunde politikoei herriaren beharrei eta eskaerei erantzun diezaiotela eskatuko genieke", ondorioztatu du bikoteak.

Hori horrela, ezinbestekotzat jotzen da HELerregularizazioa mugimendutik mekanismoak bilatzea, migrazio-estatus irregularrean eraginez pertsona horiek pairatzen duten ikusezintasun eta eskubide gabeko egoera iraultzeko. Hala, ekin zaio jada sinadura-bilketari, eta 18 urtez gorako eta Espainiako NANA duten herritarrek parte hartu dezakete abuztura bitarte proposamenean.